

**I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA**

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

**ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA
FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA****9/2025 prozeduran interesa izan dezaketenak epatzea**

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, jakinarazten da Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren 561/2024 Foru Aginduaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi errekursoan (9/2025 prozedura laburtua) espedientea aurkeztu eta bidali dela Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 3 zenbakiko Epaitegira. Foru Agindu horren bidez karrerako funtzionarioa izendatu zen, administrazio bereziko eskalako teknikarien azpieskalako teknikari laguntzaileen klaseko (basozaina) C taldeko C1 azpitaldean karrerako funtzionario izateko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuari baitagokio (2022ko EPEa).

Iragarki honen bidez epatu egiten da prozeduran interesa izan dezakeen oro, autoetara bertaratu eta parte har dezan. Horretarako, bederatzi egun izango dituzte interesdunek, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 15a

*Funtzio Publikoko zuzendaria***MARÍA JOSÉ FERNÁNDEZ ALONSO**